

Sei emakume bordondantzari aritu ziren estreinakoz 2013ko San Joan egunean. 2022an lehenbizikoz

emakume bat izan zen dantzarien kapitain. Miren Nazabal Urruzola. Ereferente eta mugarri zarete. tradizioa eraldatu eta datozenei bidea irekitzeagatik.



JOA SAN NAK

20

24

ekainak 21-24
TOLOSA

**GORA
SAN
JOA
NAK**



Udako solstizioarekin batera datoz gure herriko jaiak. Urteko gau-rik laburrenetako suaren energiak biziberritzen ditu egunik luzeenak; uxatzen ditu gaitzak, eta dakartza indar garbia eta zoriona.

Kontrasteen jaiak baitira gureak: usadio zaharrak eta arnas berriagoak; kuadrillen kolore anabasa edo San Joan eguneko elegantzia; txintzarrien entzuna eskopetarien burrunbaren erdian; zortikoen sakontasuna edo natura besarkatzen duten doinuen patxada; une kuttunen nostalgia eta festa giroaren gozamena.

Kontrasteak kontraste, batzen duten festak ere badira. Dela lagunartean; dela suaren bueltan edo baita ekainaren 24an plazaz plaza gabiltzanean ere. Gauza ederra da herria elkartuta ikustea. Urtean egun gutxitan ikus ditzakegu horrenbeste talde aldi berean parte hartzen. Eta are bateratzaileagoak dira, gainera, jai berdinzaleak lortzeko bidean urrats eredugarriak eman direnetik. Jarrai dezagula norabide horretan aurrera egiten.

Horrek guztiak berezi egiten ditu Tolosa eta Sanjoanak. 'Zail da-lako nonahi aurkitzea, festa leku bat hobea'. Gozatu eta bizi jaiak errespetuan.

Andu Martinez de Rituerto
Tolosako alkatea

El solsticio de verano nos acerca las fiestas a Tolosa, donde nos reuniremos al calor de las hogueras en la noche más corta del año, y disfrutaremos en los días más largos.

Y es que los sanjuaneros son fiestas de contrastes: de la mezcla de colores de las cuadrillas a la elegancia del día de San Juan; o de la tradicional música en medio de las salvas a las melodías que abrazan la naturaleza, entre otros aspectos.

También son fiestas que unen: bien sea en el Día de las cuadrillas, en las fogatas o en las plazas que recorreremos el 24 de junio. Me enorgullece ver a todo un pueblo reunido en su amplia diversidad. Más aún desde que se han dado pasos firmes en favor de unas fiestas más igualitarias. Que sigamos dando pasos en esa dirección.

Os deseo de todo corazón unas felices fiestas, donde primen el respeto y la felicidad.

TXU PINA ZOA

Aurtengo Sanjoanetako txupinazoa Aiora Zulaikak botako du. 25 urte baino gehiago daramatza *Pirritx* pailazo ezagunari bizia ematen. Eta ekainaren 21ean protagonista nagusia bera izango bada ere, talde-aitortza ere bada.

***Pirritx, Porrotx eta MariMotots* pailazo taldeak hiru hamarkada baino gehiago daramatza Euskal Herriko txokoetara bizipoza eramaten. Balio eraikitzaileetan eta gai sozialetan oinarritzen dituzte ikuskizunak: errespetua, inklusioa, aniztasuna, berdintasuna, ekologia...**

Euskarari eta euskal kulturari egin dioten ekarpena ere ez da nolanhikoa, balio handiko ondarea osatuz: kantuen musika eta letrak, disko ugari, antzerki-ikuskizunak, liburuak...

Taldean, gainera, aktore lanetan dabiltzan eta bestelako ardurak dituzten tolosar gehiago ere badaude gaur egun: Oihana Sanchez eta Gari Aranzabal, eta lehenago Kristina Roperero ere aritu zen.

Belaunaldi askoren haurtzaroaren parte izan dira, eta hala izaten jarraitzen dute.

Haurrentzat une kuttuna da txupinazoarena; bada, zer egokiago aurtengo jaiak irribarre potolo batekin hastea baino!

Este año el chupinazo que dará comienzo a los Sanjuanes lo lanzará Aiora Zulaika, quien lleva 25 años realizando el papel de Pirritx. Aunque es más un reconocimiento colectivo que individual.

Y es que Pirritx, Porrotx eta MariMotots tiene una trayectoria de más de tres décadas fomentando, desde una perspectiva constructiva y positiva, valores sociales como el respeto, la inclusión, la diversidad, la igualdad o la ecología. El legado musical, literario y teatral, todo ello en euskera, es todo un referente.

El grupo, además, cuenta actualmente con más tolosarras que, aun no siendo las caras más visibles, son parte esencial del equipo: Oihana Sanchez y Gari Aranzabal. Anteriormente también formó parte Kristina Roperero.

Deseamos que los niños y las niñas comiencen las fiestas de este año con una gran sonrisa.



Ostirala

14

22:30

Euskal Herria plaza

**Kontzertua: Tolosako
Udal Musika Banda eta
Sorotan Bele.**

Larunbata

15

09:00-13:30

Alondegí plaza

**3x3 Saskibaloí txapelketa,
TAKEk antolatuta**

09.30

San Frantzisko pasealekua

**XLIV. Jose M^a Anza Memoria
txirrundulari-lasterketa, Oriako
Txirrundulari Eskolak antolatuta.**



17:30

Trianguloa plaza

**HERRI
KIROLLEN
ERAKUSTALDIA**

15:30-21:00

San Frantzisko Pasealekua

**3x3 Saskibaloí txapelketa,
TAKEk antolatuta**

19:00

Berdura plaza

**San Joan Sagardo Txapelketa,
Batasuna Elkarteak antolatuta.**

Txapelketak iraun bitartean,
dastaketa: bakailaoa,
sagardotan egositako txorizoa
eta sagardoa.

19:00

Usabal kiroldegia

**Tolosa CFren Gimnasia
Erritmikoko emanaldia.**

Igandea

16

08:45

Trianguloa plaza

T3T eta T2T Mendi Maratoiak, Oargi Mendi taldeak antolatuta.

11:30

Alondegí plaza



Oroimenerako kontzertua, Buru bihotzez elkarteak antolatuta: 'Orkestrina band Jazpara'.

18:00

Berdura Plaza

Bertso jaialdia, Harituz Bertsozale Taldeak antolatuta: Sustrai Colina, Nerea Ibartzabal, Oihana Iguaran eta Unai Mendizabal. Gai-jartzailea: Imanol Artola 'Felix'.

20:00

Andre Maria parrokia

Kontzertua: Loinatz, Oroith eta Hodeiertz abesbatzak, Requiem (Maurice Durufle).



HAURREN HIRIA ZUMARDIAUNDIAN

11:00-14:00

JOKAI (jolas mitologikoak)

16:30

Tomaxen Abenturak: antzerkia

18:00

**TramaMatraka:
musika ikuskizuna**

Egun osoan zehar

Hondarrezko irudiak



Ostirala

21

TXUPI NAZO EGUNA

10:30

San Frantzisko eliza

Jubilatuen meza.

11:30

Alondegí plaza

**V. Helduen Egunaren
hasiera Iturriza, Harizpe
eta Beti Gazteak elkar-
teek antolatuta. Ondoren, kalejira.**

14:00

Zerkausia

**Helduen bazkaria eta
dantzaldia.**

17:00

Gernikako Arbola
lorategietatik

**Erraldoi eta Buruhandien
Konpartsaren irteera.**



18:00
Plaza Zaharra.

TXUPINAZOA UDALETXEKO BALKOITIK.

**SEGIDAN, IRAUNKORRAK
TXARANGA, KALEZ KALE.**



20:30
Plaza Berria

Kontzertua: Peachy Joke.

22:00
Plaza Zaharra eta
Nafarroako Zubia

Zezen suzkoa.

23:00
Plaza Berria

Kontzertua: Nøgen.

LARUNBATA

22 KUA DRILLA EGUNA



10:30

Plaza Berritik

Haurren entzierroa.

11:30

Plaza Zaharretik

**Erraldoi eta
Buruhandien
Konpartsaren
irteera.**



12:00

Plaza Berria

KUADRILLEN EGUNEKO TXUPINAZOA

**JAINEKIN TXARANGAK ETA GIROARTE
DULTZAINA TALDEAK ALAITUTA.
TXOSNAGUNEAN HAMAIKETAKOA.**





12:15
Kalez kale

BatuMore Batukada
feminista kalez kale.

12:30
Urkizu, Gorostizuko zelaia

Et Incarnatus Orkestraren
solstizio kontzertua.

14:00
Euskal Herria plaza
Kuadrillen herri bazkaria.

16:00
Euskal Herria plaza
Erromeria Iratzar taldearekin.
Tartean, Larrain Dantza,
Tolosako Dultzaineroekin.



18:00
Euskal Herria plazatik
Plaza Berrira
Kalejira Mulambo perkusio-
taldearekin.


18:30
Alondegi plaza
Gari, Montxo ta Joselontxo
haurrentzako ikuskizuna.

20:00
Plaza Berritik
DJ Txekor.

22:30
Lopez-Mendizabal pasealekua
Kontzertua: DUDIK-P.

23:00
Plaza Berria
Kontzertuak: Xiberoots eta
DJ Fulana.

00:00
Alde Zaharra
Jainekin Txaranga.



Igandea **23** **SAN JOAN BEZPERA**

11:00-14:00

Alondegí plaza

Haurrentzako jolas parkea.

11:00

Oria ibaia

**Emakumezkoen estropadak
TAKek antolatuta.**

12:00

Berazubi estadioa

**San Joan Tennis Txapelketako
finalak.**

13:00

Trianguloa

**Emakumezkoen Tolosaldea
traineruaren aurkezpena.**

16:00-19:00

Alondegí plaza

Haurrentzako jolas parkea.

17:00

Udaletxetik

**Udal Txistulari Bandak,
antzinako erronda-bidea eginez,
San Joan zortzikoa joko du.**





19:00
Plaza Zaharra.

SAN JOAN SU TXIKIA

EDUARDO MOCOROA
MUSIKA ESKOLAKO
IKASLEEN BANDAK
GIROTUTA.



22:00
Andre Maria plaza

SAN JOAN SUA.

**ONDOREN, UDAL MUSIKA BANDA,
UDABERRI DANTZA TALDEA ETA
SANTA MARIA KAPEREA. SAN JOAN
ZORTZIKOA JO ONDOREN, MUSIKA
BANDA KALEZ KALE IBILIKO DA.**



20:00
Arrameleko San Joan kapera
Lehenengo bezperak.

20:00
Plaza Berria
Kontzertua: Puro Relajo.

23:00
Lopez-Mendizabal pasealekua
Kontzertua: Rockalean.

23:00
Plaza Berria
**Kontzertua: Raimundo
El Canastero.**

Astelehena

24

SAN JOAN EGUNA

07:00
Etxez etxe

Zinegotziei deia, Udal Txistulari Bandaren eskutik.

08:30
Felipe Gorriti plazatik abiatuta

Diana, Alde Zaharreko kaleetan zehar, Udal Musika Bandaren eskutik.

08:45
Udaletxetik abiatuta

Diana, Tolosako eta Iruñeko Udal Txistulari Banden eskutik.

09:00
Udaletxetik abiatuta

Diana, Tolosako Dultzaineroen eskutik.

09:30
Plaza Zaharra

ESKOPETARIAK ETA UDAL MUSIKA BANDA BILDUKO DIRA.

DIANA, DESFILEA ETA, ONDOREN, SAN JOAN ALARDEA, GIPIZKOAKO ANTZINAKO FORU-MILIZIEN OROIMENEZ.

10:00
Andre Maria parrokia

Meza Nagusia, Santa Maria Kaperaren parte hartzearekin.








Ondoren,
Andre Maria plazatik

Prozesioa. Amaitu ondoren,
esketari konpainiak Euskal
Herria plazan bilduko dira berriro,
bertan azken deskargak egiteko.

13:00
Berdura plaza

Tolosako eta Iruñeko Udal
Txistulari Banden eta Udal
Musika Bandaren kontzertua.





16:40
Plaza Zaharretik

**UDALBATZA, UDAL
TXISTULARI BANDA,
UDAL MUSIKA BANDA,
BORDONDANTZARI ETA
ESKOPETARIEK OHIKO
IBILBIDEA EGINGO DUTE:
ANDRE MARIA, ARRAMELE,
TRIANGULOA PLAZA ETA
ZUMARDIAUNDIA.**



16:45ean Andre Maria parrokian, bigarren bezperak. 17:30ean San Joan ermitan, Arrameleko konpletak.

Trianguloa plazan udalbatzak Esku-aldatzeko soinua eskaini eta eskopetarien azken deskargak egingo dira. Ondoren, Zumardiaundian ohiturazko Aurrekua dantzatuko da.

20:00 eta 23:30
kalez kale

Kalean txaranga.

23:00
Zumarditxikia

Suak: Vulcano
piroteknia.

23:30
Lopez-Mendizabal pasealekua

Dantzaldia:
Joxe Mendizabal.

23:30
Plaza Berria

Erromeria: Muxutruk.



PROGRAMA

14 DE JUNIO | VIERNES

22:30, Euskal Herria plaza.
Concierto de la Banda Municipal con Sorotan Bele.

15 DE JUNIO | SÁBADO

09:00-13:30, Alondegi plaza.
Campeonato de baloncesto 3x3.

09:30, San Frantzisko pasealekua. Ciclismo, XLIV. Memorial J.M. Anza.

15:30-21:00 San Frantzisko pasealekua. 3x3.

17:30, Trianguloa plaza.
Exhibición de Deporte Rural.

19:00, Berdura plaza.
Campeonato de Sidra, organizado por Batasuna.

19:00, Polideportivo Usabal.
Exhibición de Gimnasia Rítmica.

16 DE JUNIO | DOMINGO

08:45, Trianguloa plaza.
Maratón de montaña T3T y T2T.

11:00, Zumardiaundia.
Juegos infantiles.



11:30, Alondegi plaza. Concierto:
Orkestrina band Jazpana.

16:30, Zumardiaundia. Teatro infantil:
Txomaxen Abenturak.

18:00, Zumardiaundia.
Música infantil: TramaMatraka.

18:00, Berdura plaza. Bertsolaris.

20:00, Parroquia Santa María.
Concierto de los coros Loinatz, Oroith y Hodeiertz.

21 DE JUNIO | VIERNES

10:30, San Frantzisko pasealekua.
Misa de jubilados.

11:30, Alondegi plaza. Comienzo del Día de Jubilados y pasacalles.

14:00, Tinglado. Comida popular de jubilados y bailables.

17:00, Gernikako Arbola Lorategiak. Comparsa de Gigantes y Cabezudos.

18:00, Plaza Zaharra.
Chupinazo y salida de Iraunkorrek txaranga.

20:30, Plaza Berria.
Peachy Joke.

22:00, Plaza Zaharra.
Toro de fuego.

23:00, Plaza Berria.
Nøgen.

22 DE JUNIO | SÁBADO

DÍA DE LAS CUADRILLAS

10:30, Plaza Berria.
Encierrillo.

11:30, Plaza Zaharra.
Comparsa de Gigantes y Cabezudos.

12:00, Plaza Berria.
Chupinazo del día de las cuadrillas.

12:15, Alde Zaharra. Jaineekin txaranga, GiroArte, BatuMore.

12:30, Urkizu. Concierto de solsticio de Et Incarnatus.

14:00, Euskal Herria plaza.
Comida de cuadrillas.

16:00, Euskal Herria plaza.
Romería: Iratzar.

18:00, Euskal Herria plaza.
Pasacalles con Mulambo.

18:30, Alondegi plaza.
Espectáculo infantil: Gari,
Montxo ta Joselontxo.

20:00, Plaza Berria.
DJ Manuela Ahizpak.

**22:30, Lopez-Mendizabal
pasealekua. DUDIK-P.**

23:00, Plaza Berria.
Xiberoots eta DJ Fulana.

00:00, Jainekin Txaranga.

23 DE JUNIO | DOMINGO

11:00-14:00, Alondegi plaza.
Parque infantil.

11:00, Río Oria. Regatas.

12:00, Estadio Berazubi.
Finales del torneo de Tenis.

13:00, Trianguloa plaza.
Presentación de la trainera
femenina de Tolosaldea.

16:00-19:00, Alondegi plaza.
Parque infantil.

17:00, Ayuntamiento.
Banda de Txistularis.

19:00, Plaza Zaharra.
Fogata de San Juan infantil.

**20:00, Ermita San Juan de
Arramele. Vísperas.**

20:00, Plaza Berria.
Puro Relajo.

22:00, Andre Maria plaza.
Fogata de San Juan, con Banda
Municipal, Udaberri y Santa
Maria Kapera.

**23:00, Lopez-Mendizabal
pasealekua.**
Rockalean.

23:00, Plaza Berria.
Raimundo El Canastero.

24 DE JUNIO | LUNES

SAN JUAN

**07:00. Llamada de las y los
concejales, a cargo de la Banda
Municipal de Txistularis.**

08:30, Felipe Gorriti plaza.
Diana de la Banda Municipal.

08:45, Ayuntamiento.
Diana de las Banda Municipales
de Txistularis de Tolosa y
Pamplona.

09:00, Ayuntamiento.
Diana de Tolosako Dultzaineroak.

09:30, Plaza Zaharra.
Concentración de las compañías
de escopeteros y escopetas.

10:00, Parroquia Santa María.
Misa. Después, procesión. Al
finalizar, concentración de las
compañías en la Euskal Herria
plaza.

13:00, Berdura plaza.
Concierto de Txistularis y
Banda Municipal.

16:40, Plaza Zaharra.
Recorrido habitual de la
bordondantza: Andre Maria,
Arramele, Trianguloa plaza,
Zumardiaundia. 16:45, Andre
Maria kalea. Vísperas. A las 17:30,
completas en Arramele kalea.

20:00 y 23:30.
Kalean txaranga.

23:00, Zumarditxikia.
Fuegos artificiales.

23:30, Plaza Berria.
Muxutruk.

**23:30, Lopez-Mendizabal
pasealekua.**
Joxe Mendizabal.



AGENDA



kultura

Ekainaren 13tik uztailaren 6ra
Aranburu Jauregia.

Kultur Etxeko arte plastikoen lantegietako ikasleen lanen erakusketa. / Exposición de obras de los talleres de artes plásticas de la casa de cultura.

Ekainak 14
Leidor. 20:00etan.

MARAT-SADE antzezlanak Kultur Etxeko antzerki-tailerreko ikasleen eskutik. / Teatro, a cargo del alumnado del taller de Teatro de la Casa de Cultura.

Ekainak 17, 18, 19 eta 20
Zerkausia. 19:00etan.

Musika Eskolako ikasleen kontzertu zikloa: Orkestra, Banda, Abesbatza, Akordeoi taldea, Txistu taldea, Dultzaina taldea, konboak eta abeslariak. / Ciclo de conciertos del alumnado de la Escuela de Música.

Ekainak 19
10:00etan.

XIV. Mus Txapelketa eta emakumeen arteko IV Punttu Txapelketa, Iturriza Jubilatuta eta Pentsionisten Elkartearen

lokalean. / Campeonato de Mus y Gran Premio San Juan de punto femenino, en el local de Iturriza.

Ekainak 20
11:30ean.

Toka Txapelketa Harizpe Jubilatuta eta Pentsionisten Elkartearen lokalean. / Campeonato de toca de jubilados y jubiladas en el local de Harizpe.

Ekainak 21, 22, 23 eta 24
Oria Kalea.

Kontzertuak, Hiru tabernak antolatuta: Isidro Larrañaga musika eskolako taldeak, Laket, La Topadora eta The Hastelens, hurrenez hurren. Kontzertu guztiak, 18:00etan. / Conciertos en la calle Oria, a partir de las 18:00 horas.

Ekainaren 27tik 30era
TOLOSANDBLUES

Noa & The Hell Drinkers, The Groovy Four, Txell Sust & August Tharrats Trio, Star Blues, Ander Zubillaga, Joan Pau Cumellas Band, Billy Branch & Sons of Blues, Indigo Blues eta Nico Wayne Toussaint Big Band.

kirola

Ekainak 15, 16, 22 eta 23
Uztailak 6 eta 7.
Usabal kiroldegia. 09:00-21:00.
IKT Torneoa / Torneo de natación IKT.

Ekainaren 12tik 16ra.
Berazubi estadioa.
San Joan IV. Padel Txapelketa. / Torneo de Padel.

Ekainaren 22tik 30era
Usabal kiroldegia. 10:00-20:00.
Areto futboleko San Joan txapelketa, Kirolagunak elkarteak antolatuta. Campeonato de San Juan de fútbol sala.

Ekainak 29
Beotibar. 09:00etan.
Zesta Punta San Joan txapelketa. Campeonato San Juan de Cesta Punta.

Uztailak 12, 13 eta 14
Ehunmilak lasterketa Tolosatik pasako da.
Carrera de montaña Ehunmilak.

Uztailak 13
09:00-21:00, Usabal Kiroldegia.
San Joan Igeriketa Saria.
Trofeo San Juan de natación.

gogoan izan

Ongi etorri Tolosara, gozatu Sanjoanak.

Bienvenida/o a Tolosa a disfrutar de los Sanjuanés.

Jai alaiak eta gogotsuak nahi ditugu.

Queremos unas fiestas donde prime la alegría y la diversión

Izan jarrera arduratsua alkoholarekiko.

Actitud responsable con el alcohol.

Parte hartu eta ondo pasatu, baina errespetuz.

Participa y disfruta, pero con respeto.

Sanjoanetan ere birziklatu, berrerabili eta sortu zabor gutxiago.

En sanjuanés también recicla, reutiliza y reduce la basura.

Tolosak EZETZ! DIO indarkeria sexistaren aurrean. JOKA SANO. Ondo pasa, pasa gabe. #LIBRENonahi.

Tolosa ¡NO! ante la violencia machista. JOKA SANO. Diviértete, no te pases.

Edozein arazo bada, Tolosako deitu Tolosako Udaltzaingoren telefonora (24 orduko arreta zerbitua): 943 67 58 58.

Ante cualquier problema llama al teléfono de la Policía Municipal de Tolosa (Asistencia 24 horas): 943 67 58 58.

Ez oztopatu garbiketako lanak.

No obstaculizar el trabajo del servicio de limpieza.

Erabili komun publikoak.

Utiliza los baños públicos.

aurre kontua

MUSIKA EMANALDIAK. Gauekoak, egunekoak	70.500 €
GAINONTZEKOAK Dultzaineroak, txarangak, bandaren kontzertua	24.100 €
BESTE IKUSKIZUNAK. Su artifizialak, sagardo dastaketa, bertsolariak, herri kirolak, dantza-ikuskitunak	22.500 €
HAUR IKUSKIZUNAK. Parkea, zezentxoak, Haurren Hiria...	8.500 €
ESKOPETARIAK. Dirulaguntza, seguruak, salbak	24.000 €
KOADRILA EGUNA. Emanaldiak, karpak	13.900 €
ARGITALPENAK, PUBLIZITATEA. Kartel lehiaketa, erreportajeak	3.900 €
GASTU OROKORRAK Komunak, elektrizitate lanak, garraioak, loreak, soinu-ztapenak	35.316 €
Guztira	202.716 €

ERASORIK GABEKO JAIEN ALDE, JARRERA AKTIBOA IZAN!

POR UNAS FIESTAS LIBRES DE
AGRESIONES SEXISTAS, ¡ACTÚA!

GUNE MOREA

INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO GUNEA
Espacio libre de violencia machista

Ekainak
Junio

22-23-24

24:00 / 05:00

ANDRAGORA

Tolosaldeko
Emakumeen
Etxea

Emakumeen Plaza, 1
(Musika Eskola
ondoan / Junto a la
Escuela de Música)



JOKA SANO
Ondo pasa, pasa gabe!!!

943 675 858

Tolosako Udaltzaingoa
24 orduko arreta zerbitzua

Policía Municipal de Tolosa
Asistencia 24 horas



JOA | SAN
NAK
20 | 24

